

# Herri Aldizkaria Otomotz

□ Maiatzaren 26an Goierri Elkartean **Zintzo Mintzoko** kultura taldeak antolatutako bertso afarian hirurogei lagun elkartu ziren **Andoni Egañaren** eta **Sebastian Lizasoren** bertsoak entzuteko irrikitan. Giro ezin hobea sortu zen, bertsolariak batez ere gai librean aritu ziren beren gatz eta piperrarekin. Bukaeran Urretxuko Bertso eskolakoak diren Asier Otamendi, Gorka



Ojanguren eta Nerea Eluztondo beldur gabe aritu ziren bertsoan. Aginakoak ere aipatu behar dira trikitixarekin Goierri elkarteko bazterrak astindu baitzituzten.

□ **Azul Tejerina**, 22 urteko zumarragarra, Gaztela-Leongo juntak antolatutako *Francisco de Cassio* kazetal sari ezaguna irabazi du egindako bideo erreportaia batez, eta miloi bat pezeta eskuratu du. *Francisco de Cassio* saria, Gaztela-Leongo kazetal saririk ospetsuena eta ezagunena da eta bertako komunikabide nagusienetako kazetari profesional askok hartzen dute parte lehiaketa honetan. **Azul Tejerina**, egun kazetaritzako laugarren maila ikasten ari da Nafarroako Unibertsitatean eta berak egindako bideo erreportaietan iaz Leonen, bertako juntak gonbidatuta izandako Saharako neskatxa baten istorioa kontatzen du. Saria, Gaztela-Leongo juntako presidenteak, Jose Lucasek eman zion.

□ Hilaren 16an Urretxuko **Iparragirre plaza** berria inauguratu zen. Inaugurazio ekitaldian herriko agintariek gain, Patxi Ormazabal Eusko Jaurlaritzako hirigintza kontseilaria eta Julen Goikoetxea kontseilarioordea izan ziren. Plaza bedekatu eta Lurra dantza taldeko dantzari batek aures-

kua dantzatu ondoren, agintariek, herriko alde zaharra, bidegorria, Mugitegi industrialdea eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin eraikitzeaz dauden babes ofizialeko etxebizitzak ikusi zituzten. Eusko Jaurlaritzako ordezkariak bertan bazkaldu zuten eta bazkalostean udaletxean bilera izan zuten.

□ **Unai Izagirre Larrañaga** urretxuarrak irabazi du Zumarragako udalak antolatutako *Santa Isabeletako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketako* lehenengo saria.



Guztira, 20 lan aurkeztu dira lehiaketara eta Unai Izagirrek lortu du eman den sari bakarra. Diseinu industrialak ikasten ari den urretxuarrak 40.000 pezeta eskuratu ditu sari honekin.

QUEXALIZABOEN

**Zintzo Mintzo**  
ELKARTEA



**ZURICH**  
Aseguruak

Agustin Elias Larrea  
Erregistro zenbakia: 2072563049 G

© 72 37 76 Faxa: 72 53 46  
Labeaga 33-G etxeazpia 20700 URRET XU



**Ura guztion eskura!**

S. Esnaola 34, etxeazpia  
20700 ZUMARRAGA

© 72 04 23



**MAPFRE**

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 • © 72 20 00 - Fax: 72 24 00  
20700 - ZUMARRAGA

## MENDIA GARBI, INGURUNE NATURALAK GARBI MANTENTZEKO KANPAINA



Meakako atsedean tokian erretegiak jarri zirenetik, ingurua asko zikindu da. Hau ikusirik, Antzuolako Arrola Mendi Taldeak, mendia garbi mantentzeko eta batez ere, zaborrak mendian egin dezakeen kalteaz kontzientzia gaitzen MENDIA GARBI izeneko kanpainari ekin dio. Kanpaina hau ekainaren 9an hasi zuten eta irailaren 17rarte luzatuko da eta epe honetan mendizaleak Meaka inguruan ibiliko dira arazoaz informatzen eta konponbideak azaltzen

### Zergatik hasi duzue MENDIA GARBI kanpaina Meaka inguruan?

Kanpaina 92. urtean hasi genuen, lehengo atsedean tokietan Antzuolako udalak erretegiak jarri zituenean. Erretegiak jartzearen ondorioz, inguru horretan zabor asko pilatu zen eta Arrola Mendi Taldeetik egoera konpontzeko premia ikusi genuen. Iaz mendia garbi mantentzeko egin behar dena azalduz, informazio orriak banatu genituen bertan, baina emaitzak ez ziren nahi bezalakoak izan. Aurten kanpaina eraginkorragoa egin nahi dugu.

### Zein da MENDIA GARBI kanpainaren helburua?

Sentsibilizazio lana egin nahi dugu batez ere. Ez gaude zakarrak mendiko zakartokietara botatzearekin ados, ingurune naturala zikintzen delako. Jendeak mendira eramaten dituen zaborrak etxera itzuli behar dituenaren kontzientzia hartu behar du, hori da gure asmoa.

Zaborrak mendian egin dezakeen kalteaz kontzientziatu nahi dugu jendea.

### Nola burutuko duzue kanpaina?

Gure asmoa brigadak osatu eta asteburu eta jai egunetan jende gehien mendian ibiltzen den garaian mendira joan, eta bertan topatzen dugun jendea, mendia garbi mantentzeko egin beharrekoaz informatzea da.

**Mendira joandakoan bertan egondako ahalik eta arrasto gutxien utzi behar dugu**

Horretarako informazio orriak banatuko ditugu eta jendearekin hitz egingo dugu, mendiaren egoera komentatuz eta garbiago mantentzeko konponbidea zein litzatekeen azalduz. Honetaz gain, plastikozko zorroak banatuko ditugu zakarrak

bertara bota ondoren, poltsa etxera bueltatu dezan jendeak. Gainera inguruan zikinik ikusiz gero jaso egingo dugu.

### Erretegiak jartzearen ondorioz zikindu bada Meaka ingurua, erretegi hauek kentzearen aldekoak zarete?

Arrola Mendi Taldeko kideak, erretegiak ez jartzearen aldekoak gara, ingurune naturala artifizialtzen delako, ingurunea hondatzen delako. Hala ere, ez dugu kentzea eskatzen. Udalari eskatuko genioke jarri zituena bera izanda, garbi mantentzeko konpromezua hartzeko, Arrola Mendi Taldearen lana ez baita astero mendi garbiketari aritzea.

Herri Aldizkaria

**Oraindik ez baduzu etxean jasotzen edo lagun bat baduzu jasotzen ez duena**

Deitu 72 57 75 telefono zenbakira edo idatzi Labeaga 12, etxeazpira zure izen, abizen eta helbidea emanaz.

Herri Aldizkaria

**JAKA**

KRISTALDEGIA

Ipeñarrieta, 18  
20700 URRETXU

© 72 14 13

**MASTER** - Hezkor  
CADENA

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena

Prezio eta modeloetan aukera benetan aparta!

Urdaneta Hiribidea, 5 © 72 41 31  
20700 ZUMARRAGA

SANTA ISABEL EGUNA ANTION



Herri bazkaria

Urte osoan herritarrok irrikitan egoten gara uztailaren 2a iristeko, gizaldiz-gizaldi bete den ohiturari eutsiz, garai batean Zumarragako Andre Mari izandako elizara, Antiguara, eta bere inguruetara hurbiltzeko.

Goizean Udaletxetik Eitzako bidean gora Antiguarantz txistulariak, dantzariak, Udalgizonak eta herritarrak abiatuko dira.

Eliza barruan eta baita Meza Nagusiaren ondoren ere ezpatadantzariak txistularien laguntzarekin une hunkigarriak eskainiko dizkigute. Gero herritarrak izango dira jaia egingo dutenak, eta hau ere ez nolanhikoa, Antiokoa Euskal Herri guztiko erromeriarik handienetakoa dela esan baitaiteke. Bazkal aurretik bertsolariak, soinua, herri kirolak... izango dira. Eguerdiko ikuskizunak amaitutakoan zenbaitek erroskilak erosi eta etxera alde egingo du bazkalordurako, baina bertan makina bat sendirentzat eta koadrilarentzat herri bazkaria

egitea izan da ohitura, gero arratsaldeko erromeriarako bertan izateko. Garai batean udal agintariak beren tartekoekin serora etxean, balkoia zuen aretoan, bazkaltzen zuten, eta apaizak, aldiz, ondoko aretoan. Txistulari eta dantzari, berriz, beti gorde izan zaie mahaia.

Dantzari dagokionez aipatu behar da Zumarragako erromeria izan dela hemengo bakarrenetakoa, dantza loturik egiten ez dena, dena dantza librean egin izan da, baina zenbait garaitan, dantza bueltak ematerakoan, jendeak elkarri heltzen zion.

Bestalde, arratsaldeko seietan edo zazpitan arrosarioa erreztatu eta San Juan egunean hasi eta egunero egindako bederatziruareneko azken elizkizuna izaten dela aipatu behar dugu.

Erromeriarri herriko plazaraino eta berriz ere Eitzatik joango den jaitsierak emango dio bukaera.



Ama Birjina, garai bateko serora etxea zeneko aurrean prozesioan daramatela

**Balentina. JATETXEA**

Urola, 6 © 72 50 41  
20700 - ZUMARRAGA

**UROLA**

**ELEKTRATRESNAK**

© 72 02 15 - Faxa.: 72 52 91  
S. Esnaola, 2 ZUMARRAGA 20700

**JAKIN**

Dendetarako kutxa  
erregistratzaileak

Labeaga, 12 © 72 36 08 20700 URRETXU

**ILLARGI, E.A. okindegia**

© 72 02 11 - Fax: 72 04 11  
Azkoitirako bidea, z/g 20700 URRETXU

**ARTYRO**

Markoketa lanak eta  
Arte Ederretako tresnak

Ipeñarrieta, 4 © 72 14 20  
20700 URRETXU

## Diru asko behar al da festak ondo pasatzeko?



Jon Agirrezabal, 23 urte

Festatan ondo pasatzeko asmoa daukagu beti, hau dela eta dirua ez da guztiz beharrezkoa baina laguntzen du.



Iñigo de la Piedad, 22 urte

Ez da nahitaezkoa, baina dirua baduzu aukera gehiago dituzu gauza desberdinak egiteko, kanpoan afaltzeko... Alaiago irteten naiz etxetik poltsikoak beteta baditut.



Idoia Gomez, 23 urte

Beharrezkoa ikusten dut, gaur egun dirurik gabe gauza gehiegi ezin direlako egin, gainera festatan ez zera egun guztian paseatzen ibiliko eta edozein tabernatan sartuta ere dirua behar duzu.



Oihane Toledo, 19 urte

Egitarau majo bat eta jendearn partehartzea handiagoa balitz, ez genuke hainbeste diru behar izango, aukera gehiago emango liguke gauza desberdinak egiteko tabernaz taberna ibili beharrean.



Duela 22 urte hasi zen Zumarragako danborradan jotzen eta 17 daramatza zuzendari moduan. Beasain, Azpeitia, Donostia, Legazpi eta Debako danborradak ikustera joaten da eta hauekin konparatuz Zumarragakoa kalitatez ez omen da ez onena ezta txarrena ere, normala baizik. Zumarragako martxa du bertako danborradako piezarik gustukoena.

Helduen eta haurren danborrada antolatzen du taldearekin batera, eta haurrekin lan egitea helduekin egitea baino pozgarriagoa denez, haurrena ilusio handiagoz prestatzen dute.

Danbor nagusi berri batek danborrada zuzentzea gustatuko litzaioke baina inor animatu bitartean berak jarraituko du lan horretan.

**JOSE ANTONIO MENDIZABAL**

# EDURNE

*Punta puntako moda*  
*Aukerarik hoberena*  
*gizonezko eta gazteentzat*

Piedad, 18 ☎ 72 14 17 ZUMARRAGA



## TXINATAR JATETXEA

Eguneko menua: 750 pta.

Menu bereziak

109 plater ezberdin

Labeaga 33  
(Madaya)

URRETXU

☎ 72 52 43

# BIONA


AROSZTEGIA

☎ eta Faxe: 72 02 55

Erratzu, z/g 20700 URRETXU

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa fundazioa**

**fundación kutxa**

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

**GOIARGI ABESBATZA, 10 URTE GEHIAGO BAINA OSASUNTSU**

Aurtengo ekainean Zumarraga Urretxuko **GOIARGI** Abesbatzak 10 urte bete ditu ahots nahasien abesbatza bezala. Urte asko dira eta, hortaz, orotzapen ugari. Ospakizuna borobila izan zedin ekainaren 25ean kontzertua eskaini zuten Antiguako Baselizan. Baina gure asmoa 10 urte horien gorabeherak ezagutzea zenez, bere zuzendari den Xabier Arratibel ekarri dugu **OTAMOTZ**eko orrialdeetara



**Otamotz.:** *Gizonak sartu zirenerako Goiargi jada existitzen zen, baina aldaketa honek eten bat suposatuko du bere historian. Zer nolakoa izan da garapena ordutik hona?*

**Xabier Arratibel:** Hasieran berria den guztia bezala ilusio handiarekin hasi ginen. Xabierrek planteatzen zuen abesbatzaren ideia ez zen lagun batzuk besterik gabe abesten jartzea. Bere ideia nahiko berritzailea zen, teknika, arnas-keta aldetik... Jendeari berezia iruditzen zitzaion.

Gerora helburu txikiak markatuz joan ziren, Topaketak, Ttoparak, hauek garai hartan egiten ziren abesbatzen arteko egunpasak ziren.

Handik urte batzuetara Ejea de Los Caballeros eta Avileseko lehiaketak etorri ziren eta haiekin sari bana. Tolosan ere izan ginen, han irabazi ez bagenuen ere, marka ona utzi bai.

Barriolak zuzendaritza utzi eta ni hasi nintzenez etena egon zen, normala denez. Estiloa aldatu zen, elkarrenganako egokitzeak... Baina, besterik gabe.

**O:** *Zer azpimarratuko zenuke GOIARGItik giza talde bezala musikaz at?*

**X:** Talde positiboa da. Oso jende ezberdina gara baina talde jatorra osatu da. Hori egin dugun azken bidaian ikusi da. Bartzelonan izan gara eta oso denbora gutxian dena ikusi behar zen, baina giroa paregabea izan da. Gazte gazteak ez izan arren, koruko partaideak hori ziruditen, edozein tokitan eserita, edozein modutan... Benetan bidaia ona izan da gizatasun aldetik.

**GOIARGI jada instituzio bat da, ez bakarrik abesbatza**

**O:** *Zer nolakoa da GOIARGIren osasuna?*

**X:** Ona, baina mugak dauzka. Kontutan izan behar da 10 urte helduagoak garela eta hori nabari da. Posibilitateak murriztuz doaz eta teknika indartu egin behar da. Gure ahalmenetara mugatuz gero, ona dela esan daiteke.

**O:** *Zeintzuk dira zuen proiektuak?*

**X:** Gertura begira 10. urteurrena ospatu ondoren, irailean Urretxuko

festak eta gero Gabonetako kontzertua.

Agian, 10. urtemuga dela eta, disko bat grabatuko dugu. Ez da oraindik erabaki saltzeko edo banaketa mugatu baterako. Hemen inguruko musikagileen abestiak abestuz disko bat ateratzea interesgarria litzateke.

Luzera begira, ikusiko dugu. Argi dago batzuk abesbatza utziko dutela eta koroa berritu beharko da. **GOIARGI** jada instituzio bat da ez bakarrik abesbatza eta bere atzetik nesken eta haurren abesbatzak daude, hortaz etorkizuna egon badago. Nik uste dut koroa era natural batean joango dela berritzen.

Bukatzeke Xabierrek seriotasuna kendu nahi dio abesbatzari: *"Abesbatza hau ez da profesionala. Taldea ez ezagutzeak taldearen irudi okerra ematen du, itxiegia eta serioegia bailitzan eta ez da inolaz ere horrela."*

Bestalde azpiegitura apropos baten ezak arazoak sortzen dituela ere esan nahi du: *"GOIARGIk argi utzi du lan egiten duela, eta argi dago azpiegitura hobea beharko genukeela, toki dexente bat adibidez."*

**URRETXU**  
OPTIKA - GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Iparagirre, 1    ☎ 72 59 68    20700- URRETXU

**KALITATEA ● TEKNIKA ● ZERBITZUA ● MODA**

**ISkin**

Poltsak, usaingarriak eta bitxiteria

Elizkale,17 20700 ZUMARRAGA



San Juan bezpera egunean tradizioari traizioa eginez, aztiren batek su eman zion gauean erretzeko prest zegoen adar eta egur pilari. Otamotzeko erredakzioak berehala CESIDekin harremanetan jarri ondoren errudunaren berri izan du. Hala ere eskusiba El Mundo egunkariari eman dio berriz ere.

## NONDIK DATOR!


### AIZPURU

Aizpuru abizena (edo Aizpurua eta Aizpuro moduan ere agertzen delarik) "(h)aitz" edo "(h)atx" haitza edo harriaren esanahia duena eta "buru", buru edo tontor esanahia duen osagaiez osatuta dago; hau da, haitz tontorraren esanahia du. Gaur egun abizen oso ezaguna da Euskal Herrian, eta Zumarragan (Aizpuru), Gipuzkoako Zubietan (Aizpurua), Pasaian (Aizpurua) edo Azpeitiako (Aizpuru) herrietan aurki daitezke dagozkien jatorrizko ezkutu heraldikoak. Toponimo moduan, Gabiriko Aitzeleku mendiko inguruetako tontor bat ere Aizpuru izenez ezaguna da.

## Uztaileko Ingeleseko Uda Ikastaroak

Azkeneko hamar urteotan, ingeleseko irakaskuntzari dagokionez, oso aldaketa positibo gutxi ikusi ahal izan dut. Atzera begira, gutxien kontuan hartu izan den alorra, komunikazioarena izan da.

Oro har, irakasleek, gramatika, fonetika, entzumena eta umeentzako abestiak jorratu dituzte, ikasleak, ingelesean eginiko oinarritzko elkarrizketarik egiteko gai ez direla kontutan hartu gabe. Ene ustez, edozein hizkuntzatan komunikazioak berak duen garrantzia aintzakotzat ez da hartu, hau da, irakasleek eta ikasleek bi edo hiru ordutako klaseekin ia ezer lortzerik ez dagoela onartu behar dute. Orduan, zer egiten dute ikasleek asteak dituen gainontzeko 165 ordu horietan?



Michael Gutteridge  
Ingeleseko Irakaslea

Oinarritzko gramatika jakitea guztiz beharrezkoa da, baina irakasleek irudimena gehiago erabili behar dute, ingelesa irakasteko metodoetatik kanpo noizbehinka, irtenez. Nik eskolen arteko elkarlan handiagoa gustura ikusiko nuke, bi herrien arteko antzerki topaketak, lan erakusketak, zinema, Ingalaterran egindako udalekuak eta lehiaketak, hots, ingelesaren ikaskuntza errealistagoa eta entretenigarriagoa egingo lukeen iharduera aukera zabal berria.

Ikasleak, informala den giro batean, beren burua kanpora gehiago irekiko lukete, dakiten ingelesa erabiliz eta askatasun osoz parte hartuz. Uztailean egindako ikastaro trinko bat ez litzateke beharrezkoa izanen, urtean zehar egindako murgilpen sistema osoago baten bidez ingelesa irakasten bada. Era honetan, ingelesa, ikasle gehienentzat behar hutsa dena, zerbait atsegina izan liteke.

IMPORTAZIO BERRIAK  
**CAPADOCIA**  
ALFONBRAK - KILIM - CICIM - SUMAK  
Zuzeneko inportatzailea  
Konponketak egiten dira  
Labeaga 12, etxeazpia 20700 URRETXU  
© 72 17 71

**Mutua General de Seguros**  
Iparragirre, 11-etxeazpia  
20700 URRETXU © 72 25 99

ITURGINTZA  
 **LUIS ANGEL**  
Gure erakusketan zain zaitugu!  
Deskargarako bidea, z/g. © eta Faxe: 72 54 59

**ELIZ - KALE**  
 **AUTOESKOLA**  
Bidezar, 11  
20700 ZUMARRAGA © 72 04 52

TEKNOLOGIARIK BERRIENA ZURE ESKU  
**HEGIALDE AUTO**  
ZERBITZU OFIZIALA  
● KONPONKETAK OROKORREAN  
● IBILGAILU SALMENTA  
● GARBIKETA ZUBIA  
 PEUGEOT  
Mugitegi, 17 © 72 51 37 - URRETXU

**Baskotour bidaiak**  
**Berandu gabe, gorde ezazu Udarako Bidaia!**  
S. Esnaola 28  
20700 ZUMARRAGA © 72 24 09

# IKER ZABALETA: "Kamioilariek ez gaituzte errespetatzen"

Afizionatu mailan dabilen txirrindulari hau, denboraldi bikaina betetzen ari zen kamioi batek bultzatu eta errepidean etzanda utzi zuen arte. Ordurarteko emaitzak ikusita, hiru garaipen eta podium ugari, profesional mailara iritsi daitekeen txirrindulari baten aurrean gaudela pentsa dezakegu.

**Otamotz: Zer moduz aurkitzen zara ?**

Iker Zabaleta: Besondoa, omoplatoa, klabikula eta bost saihets apurtuak ditut. Horretaz gain, esku-mutur eta orkatilan zaintiratu bana, eta eskafoide arazoak ditut. Badakit asko dela baina okerrena gerta zitekeen, beraz, zorte pixka bat izan nuela esan daiteke.

**O: Zein asmo duzu datorren urterako?**

I: Momentuz sendagileek, lau hilabete geldirik egon beharko dudala diote. Nire asmoa ordea, denboraldi amaieran lasterketaren batetan parte hartzea da. Txikitatik dudan helburua, profesioaletan aritzea da eta hau, lehenbailehen egitea gustatuko litzaidake, ahal bada, datorren urtean.

**O: Baina probaren bat egin duzu, ezta?**

I: Bai, profesional mailakoa den Errioxako itzulian parte hartzeko aukera izan nuen Estatuko selek-

zioarekin. Korritzeko era ezberdina den arren, orokorrean ez dago horrenbesteko ezberdintasunik. Afizionatu maila, profesioaletara iristeko ezinbesteko pausu bat denez, prestaketak antzekoak dira. Errioxan, gustura ibili nintzen, bronkitis bat izan ez banu, agian, paper hobea egiteko aukera izango nuke. Afizio-

**Profesioaletara iristeko irrikitan nago**

natuetan, etapa hasten den momentutik bertatik, abiada bizian aritzen gara, profesioaletan, ordea, azken berrogeita hamar kilometroetara arte, normalean, astiro joaten da. Hortik helmugara, berriz, sekulako abiadan. Hor egon daiteke bi mailen arteko alderik nagusia.

**O: Zeure burua nola definituko zenuke?**

I: Eremu guztietan defendatzen




naiz, zertxobait hobeto sprintean. Aurten nire buruarengan konfidantza handiagoa dut eta, ahal dudanean, sprintera sartzen naiz.

**O: Bukatzeko, Tourreko podiuma zure ustez:**

I: Indurain, Rominger eta Berzin edo Zulle. Azken hau, podiumean sartzea nahi nuke baina Berzin ere oso indartsu dabil. Ez zitzaidan gehiegi gustatu Berzinen jokaera Euskal Bizikletan baina ezin da ukatu txirrindulari ona denik.

## YOGA HASTAPENA UZTAILEAN



YOGA OSASUNAREN ZIENTZIA DA BIZITZAREN ZENTZUA BILA DEZAGUN!

Haurrentzat: jokuak, ipuinak eta abar

Helduentzat: arnasa hartze egokia, ariketa fisiko eta lasaipena

☎ 73 04 45

# Munch

Barne jantziak - Lencería

Legazpi, 9 ☎ 72 43 58 ZUMARRAGA  
San Martín, 18 ☎ 42 42 14 DONOSTIA

LIBURUDENDA

# GANBARA

Labeaga, 52 Tel. eta Faxe: 72 50 45  
20700 URRETXU



Gernikako Arbola plaza 5, behe A  
20700 URRETXU  
Tel: 72 59 71

